


EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2011KO IRAILA

Euskal AEko industri jarduera % 0,6 hazi da 2011ko irailean

Aurreko hilabetearekin, 2011ko abuztuarekin, alderatuta Euskal AEko industri produkzioa % 0,6 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa % 0,6 hazi da 2011ko irailean, 2010eko hilabete berarekin alderatuta betiere. Aurreko hilabetearen, hau da, 2011ko abuztuaren aldean Euskal AEko industri produkzioa % 0,6 jaitsi da, baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

1. grafikoa. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

Industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2011ko iraileko indizearen eta 2010eko iraileko indizearen bilakaeren artean aldeak eman dira sektore guztietan: ekipamenduko ondasunak % 11,6 igo dira, tarteko ondasunak % 2,0 jaitsi dira eta kontsumo-ondasun guztiak % 1,8 jaitsi dira, batez ere kontsumo-ondasun iraunkorrek behera egin dutelako (% 9,5) nahiz eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrek % 0,5 igo. Energiak % 13,2 egin du behera.

2011ko iraileko hilabete arteko aldakuntzak (2011ko abuztuaren aldean) ikur ezberdina izan du industriako sektore nagusietan. ekipamenduko ondasunak % 1,1 igo dira baina tarteko ondasunak % 2,1 jaitsi dira eta energia % 1,7 jaitsi da. Kontsumo-ondasun guztiek % 0,2 egin dute behera, kontsumo-ondasun iraunkorrek % 8,7 jaitsi arren kontsumo-ondasun ez iraunkorrek % 2,2 egin dutelako gora.

2011ko irailean (aurreko urteko hilabete beraren aldean) hazkunderik handienak izan dituzten sektore nagusiak *garraio materiala* eta *makineria eta ekipoa* izan dira, % 21,3 eta % 13,9ko tasekin hurrenez hurren.

**1. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea
Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38
sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-5,3
09 - Kautxua eta plastikoak	2,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-11,4
13 - Makineria eta tresneria	21,3
14 - Garraio-materiala	13,9
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,6
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-7,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	6,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea

Bestalde, *energia elektrikoa, gasa eta lurrina* sektoreak %11,4 egin du behera, *elikagaien, edarien eta tabakoaren industriek* % 7,1 egin dute behera eta *metalurgiak eta produktu metalikoek* urte batetik bestera % 5,3 egin dute behera.

Lurralde historikoka, Industri Produkzioaren Indizearen urte batetik besterako iraileko bilakaerak ikur positiboa izan du Araban (% 5,5eko igoera) eta Gipuzkoan (% 1,2ko igoera), baina bilakaera horrek behera egin du Bizkaian, % 2,2. Hilabete batetik besterako hazkunde-tasa, 2011ko abuztuko datuekin alderatuta, positiboa izan da Gipuzkoan, % 2,9 igo baita; baina Araban eta Bizkaian % 4,6 eta % 1,8 egin dute behera hurrenez hurren.

2. taula. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2011 iraila (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2011ira / 2010ira	M(2011ira) / M(2010ira)*	2011ira / 2011abu	2011abu / 2011uzt
Indize orokorra				
Euskal AE	0,6	3,3	-0,6	-1,6
Araba / Álava	5,5	6,7	-4,6	5,2
Bizkaia	-2,2	1,1	-1,8	-1,8
Gipuzkoa	1,2	3,7	2,9	-4,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-1,8	-1,6	-0,2	-2,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-9,5	-8,4	-8,7	-1,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,5	0,3	2,2	-2,9
Ekipo-ondasunak	11,6	5,7	1,1	1,9
Bitarteko ondasunak	-2,0	5,3	-2,1	-4,4
Energia	-13,2	-4,7	-1,7	-0,4

(*) t urteko urtarritetik 2011ko oraingo hilera arte metatutako aldiko urte arteko tasa, 2010eko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)